

“GUZTION IDEIAK LANEAN TXERTATZEN LORTZEA DA ZAILENA”



Kosmodisea 2008-2009 | Ikono Planeta | Lehen Hezkuntza (Irakurle berriak) Agurtzane Olazagoitia (Axular Lizeoa)

Agurtzane Olazagoitiak zuzendu duen ikasle-taldearen ikus-entzunezko lan batek arrakasta handia izan du 2008-2009ko Ikono Planetan.

Irudiztatutako ipuina da, musika eta ahotsez lagunduta, eta bere helburua ahalik eta jende gehienara heltzea da.

Hasieran neska-mutilek simulagailuarekin arazoak izan zituztela baina puntuazio orokorra ikustean “*pozez zorutzen jarri zirela*” onartzen du Agurtzane Olazagoitiak. Irakaslearen aburuz ikasle guztien ideiak batzea izan zen lanaren alderdirik zailena, nahiz eta “*talde-lan bikaina lortu dugu*” azaltzen duen ere. Interesgarriena? “*Lana pausoz pauso gauzatzen dela ikustea; ideiak, ipuina, grabaketa, irudiak sartzeta... dena da interesgarri*”, dio Olazagoitiak.

- Zeintzuk izan ziren alderdirik korapilatsuenak etapa honetan parte hartzeari dagokionean?
- *Ikasle partehartzaile guztion ideiak, nolabait ere, lanean txertatzea. Talde handia gara eta guztion ideiak dira baliotsuak. Azkenean, lortu dugu eta denak oso pozik eta harro daude.*

- Nola ekingo diozue Kosmodisea 2008-2009ko azken etapari?
- *Gogo handiz eta milaka ideiekin buruan. Ea ondo gauzatzeko kapazak garen eta azken emaitza guztion gustuko den.*